



* Sobre urdina:
Europar Batasuna

* Sobre laranja:
Batzar Nagusiak

* Sobre zuria:
Udal hauteskundeak

Hauteskundeak igande honetan

Andoain, Urnieta, Gipuzkoa eta Europa mailako
hauteskundeen jarraipena Aiurri.eus gunean / 2-7

Elkarrizketa sorta: Andoaingo alkategaiak

Aste honetako Andoaingo Udal hautagaiak: PPko Cano,
Elkarrekin Podemoseko Santana, EAJ-PNVko Izagirre,
PSE-EEko Lainez eta EH Bilduko Alvarez / 2-6



**Euskararen
transmisioa familia
giroan aztergai,
Bidaide ekimeneko
kideen eskutik** / 10-11



**Beloki andoaindarra
eta Mujika urnietarra
Gipuzkoa Bertsotan
txapelketan kantari
aritu ziren** / 16



**Urnietako zaletuen eta
eskubaloiko jokalarien
erakustaldia,
Nazional 2. mailarako
igoerarako ligaxkan** / 13

PIRRITX
PORROTX
ETA
MARIMOTXS
MUSUA

MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA** Egape ikastolako jolastoki estalia

7€

Antolatzaile

**AURRE
SALMENTA:**
Maiatzaren
6tik aurrera.

HERNANI
• Leokadisti. Urbieta kalea, 6.
URNIETA
• 2KN okindegia.
M.Yurramendi 2, udaletxearen ondoan.
ANDOAIN
• Aiurri. Arantzibia plaza.
• Ernaitza liburutenda. Zumea kalea

**SALMENTA
EGUNEAN
BERTAN:**
16:30. Egape ikastolako
jolastokiaren atarian.

Antolatzaile

AIURRI

Laguntzaile



Marijose Izagirre, Andoaingo alkategaia EAJ-PNV alderdia ordezkatzuz. AIURRI

"Hitza betetzen duen alderdia gara"

MARIJOSE IZAGIRRE ANDOAINGO EAJ-PNV ALDERDIKO ALKATEGAIA

2015ean egin bezala, 2019an ere Andoaingo alderdi jeltzalearen buruzagitza hartu du. Hitza eta errespetua euren zutabe nagusi direla errepikatzen du

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zein ekarpen egin diezaioke EAJ-PNV alderdiak Andoaingo Udalaren gobernantzari?

Lidergoan eta akordio politikoe-tan sinisten dugu. Hitza betetzea gure ekarpen handiena da, hori da gure eredu. Pentsatzen dugu Andoaín eta andoainarrak behar duten tokian kokatzeko horixe

dela egin genezakeen ekarpen handiena. Laburbilduz, lidergoa, akordioak eta emandako hitza betetzea.

Zer dela eta hartu zenuen Andoaingo jeltzaleen hautagaia izateko erabakia?

Lehenik eta behin Andoaingo alderdikide guztiek babesa eman didatelako. Azken urte hauetan

egindako lana berretsi dute, eta babestuta sentitu naiz.

Arrazoi nagusienetakoa andoaindarra eta andoaindar sentitzea da. Herriaren alde azken bultzada hori emateko aukera paregabea da.

Pozik zaude zure inguruan osatu osatu duzuen hautes zerrendarekin?

Bai, oso pozik gaude. Oso talde sendoa osatu dugu, lidergoa islatzen duena. Oso prestatuta, serioa eta erabakiak hartzeko gaitasuna duena. Udalgintzan eta gestioan ohitutako jendea da, eta mitinean esan nuen bezala, andoaindar peto-petoz osatutako taldea da. Andoaindarrak defendatzeko prest, eta Andoainen alde egiteko prest daudenak.

Beti ere umiltasunetik, baina harrotasunez.

Agintaldia amaitzen ari da, eta zeuk zinegotzi modura barrutik bizi izan duzu. Zein da amaitzen ari den ziklo politikoaz egiten duzun balorazioa?

Gazi-gozoa, horrela definituko nuke nik. Blokeo egoera batean geunden, eta hitza eta erabakiaren bidez blokeo hori gainditu genuen. Andoaín 2016an eta 2017an martxan jarri genuen, aurrekontuak onartu genituen. Piskanaka andoaindarrei beste Andoaín bat posible zela erakutsi genien. Hori garai gozoa izan zen.

Gero, gehiengoak aldatu zirenean, EH Bilduk emandako hitza ez zuen bete eta mahai gainean zeuden egitasmoak kaxoi batean sartu zituen. Penaz diogu, gauza asko egin zitezkeelako.

Hauteskunde programan sartuta, zein proposamen nagusi aipatuko zenituzke?

Udal Liburutegia Leizaur parkean, Jauregi baserriaren baitan egingo litzatekeen garapen urbanistiko bati lotuta. Etxebizitza berriekin eta lurrazpiko aparkalekuekin udaletxera eratorritako diruarekin, liburutegia eraikitzea ahalbidetuko litzateke.

Bazkardon, N1 eta A15 errepideen arteko lotunean, autoilaren arazoa gainditzeko saihe-bidea proposatu dugu. 25 milioi euroko aurrekontua du, eta ziurrenik Bidegik finantzatuko du. Errepide berri horrek ikastolaren atzealdeko ibilbidea moldatuko luke, eta Udalak lur-rak eskuratzeko aukera izango luke.

Andoaingo auzo ezberdinetan bizi kalitate eta baldintza ezberdinak ditugu. Guzti hori berdintasun batera eraman nahi dugu, eta horretarako Ama Kandida eta Etxeberrieta auzuneen eraberritzea proposatzen dugu. Alokairuzko etxebizitza sozialen aldeko apustua egin nahi dugu, besteak beste.

Beste ideia edo asmo batzuk aipatuko al zenituzke?

Merkatariek esfortzu handia egin dute, eta aurrera egiteko gai izan dira. Udalak lidergoa hartzea proposatzen dugu, dirulaguntza lerroak sortuz. Besteak beste, obrak egiteko edo merkatalgune berriak irekitzeko.

Beste proposamena izango litzateke Leitzarani lotutako turismo aktiboa sustatzea. Leitzarari altxor bat da, eta aterpetxea irekitzea premiazkoa da.

Kiroldegia handitzea nahiko genuke, eta hor kirol munduko behar berriei erantzun nahiko genieke. Igerileku irekia egitea eta oinezkoen bidea eta bidegorria Sorabillaraino luzatzea da asmoa.

Maiatzaren 26a bertan da. Zein da zuen aurreikuspena, igandeko Udal hauteskundeei begira?

Gu irabaztera goaz. Zenbakiei begira, alderdi bakoitza paretsu ibiliko da. Irabazten duenak, besteen gainetik, gobernua osatzeko abantaila txikia izango du. Baina, esan bezala, gu irabaztera goaz.

Zergatik eman behar zaio botoa EAJ-PNV alderdiari?

Hitza betetzen dugulako. Legealdi honetan beste Andoaín bat posible zela aldarrikatu dugu. Eta hori aurrera eraman dugu. Andoaín azken bultzada emateko gu gara alderdi eraginkorre-na. Prestatuta gaude, talde sendoa daukagu. Udalgintzan esperientzia handia duena. Prest gaude.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer?

Errespetua eta hitza gure bi zutabe nagusiak dira. Errespetuarekin eta hitza betez akordioak lortzeko prest gaude. Ez daukagu inolako arazorik, inorekin. Legealdi honetan, gainera, hori erakutsi dugu ahal izan denean. Zenbakien arabera, akordioak lortu behar badira, gu horretarako prest gaude. Igandean zer gertatzen den ikusi behar da. Marra gorriarik ez dugu jartzen, eta hitzarekin eta errespetuarekin akordioetara iristeko prest gaude beti.

"ANDOAINI AZKEN BULTZADA EMATEKO GU GARA ALDERDI ERAGINKORRENA. PREST GAUDE"



Andoni Alvarez Lete, Andoaingo alkategaia EH Bilduren alderdia ordezkatzuz. EH BILDU

"Akordioetara iristeko gaitasuna dugu"

ANDONI ALVAREZ LETE ANDOAINGO EH BILDUKO ALKATEGAIA

Nagusiki kirolaren eremuan egindako lanagatik ezaguna zen Andoni Alvarez. lazko azaroaz geroztik Ana Carrere alkatearen lekukoa hartzeko hautagai gisa dihardu

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zein ekarpen egin diezaioke zure alderdiak Andoaingo Udalaren gobernantzari?

Duela zortzi urte EH Bilduk Udal agintea hartu zuen. Lehen lau urteetan egoera ekonomikoa zailari buelta ematea lortu zen, eta horrekin batera gobernatze-ko beste eredu bat martxan jarri

zen. Garai hartan sortu zen, esaterako, Ataria arreta zerbitzu bulegoa. Bigarren agintaldian alderdien arteko harremana nabarmen hobetu zen. Egoera ekonomikoa onbideratuta, azpiegiturak berritzeko aukera izan zen. Besteak beste, hoditeria, argiteria, Arrate pilotalekua, parkeak... Agintaldi honetan,

Udalak duen 4,4 milioi euroko dirubilduarekin, anbizioz jokatze-ko garaia da. Pertsona ardatz hartuta, egindako lanari jarraitzea eman behar zaio.

Zer dela eta hautagai izateko erabakia?

Asko pentsatutako erabakia izan da. Herriaren alde lan egitea barruan daramadan gauza bat

da. Pilotan eta kirol esparruan herrigintzan aritu naiz, eta baita auzoko jaietan edota San Juan jaietan. Laguntza eske etorri zaizkit oso ekimen eta elkarte ezberdinetatik, eta nire ahotik beti baiezkua jaso dute. Udal-gintza beste urrats bat da, herrigintzan egon daitekeen pausorik handiena. Eman dudana urratsa, ezinbestean, familiaren babesari esker izan da. Bestela ez nuke ardura berria hartuko.

Zer da zuretzat Andoain?

Nire herria, eta nire bizitzeko modua da. Mundua ikusteko nire betaurrekoak direla esango nuke. Kirola, gizartea, politika... guztia Andoaingo ikuspegitik bizi dut. Ezinbestekoa da Andoain, nire bizitzan.

Pozik zaude aurkeztu duzuen hautes zerrendarekin?

Oso pozik. Eta eskertuta nagoela esan dezaket. Jende askorekin hitz egin dugu zerrendan joateko, edo babesa erakusteko. Eta baita, beste kasu askotan, iritzia eskatzeko. Prozesu hori neuk gidatu dut, eta egin diguten harremanekin oso pozik nago. Andoaingo ezkertiar ikuspegia eta abertzaletasuna, modurik zabalenean, hautes-zerrendan eta babes taldean ondo islatuta ageri dira.

Agintaldia amaitzen ari da. Zeu berria zara politikagintzan, baina zein da 2015-2019 agintaldiaz egiten duzun balorazioa?

EH Bilduk azken urteetan akordioetara iristeko izan duen gaitasuna goraipatuko nuke. Gutxiengoa izanik, lau urteetan jarraian aurrekontua gehiengo osoz onartzea lortu dute. Oso datu ona da hori.

Bestalde, udalgintza osoan zehar batzordeetan eta plenoetan egon den adostasun maila oso oso altua izan da.

Fokoa azpiegituratan eta gauza teknikoetan jartzeko joera dugu, baina nik uste dut aurre-
rapauso handiena pertsonen arteko desberdintasunak gutxitzen eman dela. Eta hor daude, adibide modura, gizarte mailako politikak eta ekimen ezberdinak.

Zeintzu dira EH Bilduk proposatzen dituen neurri garrantzitsuenak?

Udal Liburutegia Makaldegian jartzeko proposamena luzatu dugu. Bertan egin nahiko genuke, eta argi utzi nahi dut liburutegia bertan eraikitzea azoka antolatzearekin eta aparkaleku nahikoak bermatzearekin osagarria izango dela.

Kiroldegia txiki geratu da, eta kirol elkarten eta erabiltzaileen eskaerei jarraituz, azpiegiturak handitu eta osatu egingo ditugu.

Aparkalekuen eta trafikoaren berrantolaketa bat egingo dugu, egun dauden arazoei irtenbidea emateko.

Beste ideia batzuk aipa itzazu.

Liburutegi berriarekin, Emakumearen etxea egungo liburutegiaren instalakuntzatan egokitu-ko dugu. Garrantzia handiko egitasmoa da hori.

Gauza materialak garrantzitsuak izateaz gain, ezin ditugu andoaindarrak ahaztu. Bertan bizi diren pertsonen erdigunean egon behar dute, eta Ana Carrerek zabaldu-tako bidetik jarraituko dugu. Behar gehien dutenei eta adinean gora doazenei laguntzea lehentasuna da guretzat. Auzoei dagokionez, Udal Gobernuak Ama Kandidako eta Etxeberrietako ekimenak bideratuta utzi ditu. Gazteei dagokionez, Gazte Kontseilua sortu eta teknikariaren plaza sortuko dugu.

Zein aurreikuspen egiten duzu maiatzaren 26ra begira?

Egun hauetan kalean gabiltza eta jendearen aldetik jasotako sentsazioagatik, duela lau urteko babesa areagotuko dugulakoan nago. Boto guztiak beharko ditugu, herritar bakoitzarena garrantzia handikoa izango da.

Zergatik eman behar zaio EH Bilduri?

Azken zortzi urte hauetan politika egiteko beste modua bada-goela erakutsi dugulako. Ekonomikoki bideragarria dena, eta parte hartzailea. Hurbileko politika egiteko gai garelako. Horretarako, hautes-zerrendan esperientzia eta balio handiko zinegotziak eta ideia berrieke gatzon kide gazteak uztartu ditugu.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer?

Alkatetza bertako herritarrek erabaki behar dute. Donostiako edo Bilboko bulego batean egiten den paktu batean ezin da erabaki hori hartu. Lainezek edo Izagirrek irabaziz gero, herritarren erabakia errespetatuko dut. Neronek, EH Bildurako, gauza bera eskatzen dut.

"EZIN DA DONOSTIAKO BULEGO BATEAN EGITEN DEN PAKTU BATEAN ANDOAINGO ALKATETZA ERABAKI"



Teresa Santana, Andoaingo alkategaia Elkarrekin Podemos alderdia ordezkatzuz. ELKARREKINPODEMOS

"Herritarrei ahotsa ematea funtsezkoa da"

TERESA SANTANA ANDOAINGO ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOKO ALKATEGAIA Andoaingo Podemosen sorreran hortxe zegoen, eta ardura nagusia hartuta hor darrai. IU-EBrekin lortutako akordioari esker, koalizioa ordezkatzuz aurkeztuko da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zein ekarpen egin diezaioke Elkarrekin Podemos alderdiak Andoaingo Udalaren gobernantzari?

Herriari ahotsa ematea, horixe ekarpen garrantzitsuenak. Dena erabakita eta asmatuta dagoela dirudi, baina guk ez dugu horretan sinisten. Herritarrei ahotsa eman behar zaie, balio eran-

tsi hori falta da. Adibide bat: guk gure proposamenak alderdi politikoen bitartez aurkeztu egin behar izan ditugu. Hori ez zaigu normala iruditzen. Herritarra ahalduntzea nahi dugu, eta haiei ahotsa eman. **Alderdiko idazkari orokorra zara. Zer dela eta hartu zenuen alkategai izateko erabakia?**

Egoerak horretara eraman gaituelako. Gure zirkuluan edonor izan zitekeen alkategaia. Galdera da, udal korporazioa osatuta, nork egin dezake udalgintzaren jarraipena? Lana eta udal ordezkaritza uztartzea ez da erraza, bereziki enpresa pribatuan ari denarentzat. Ni funtzionarioa naiz, eta lana eta ordezkaritza

politikoa uztartzeko aukera gehiago izan dezaket.

Zer da zuretzat Andoaingoa?

Desberdintasun handiak dituen herria da. Auzoaren arabera, ikuspegia asko aldatzen da. Auzoen arteko elkartasunean sinisten dugu, eta auzo guztiak biziberritu behar direla uste dugu. Andoaingar guztiok zerga berberak ordaintzen ditugu eta pena da Bazkardora joatea eta auzoa hilik dagoela ikustea. Zumea plazan eta Goikoplazan giro handia dago, eta giro hori auzo guztietara zabaldu behar dugula uste dugu. Baliabideak eskaini behar zaizkie auzo guztiei.

Pozik zaude aurkezten duzuen hautes zerrendarekin?

Bai, baina adierazi behar da hautes-zerrenda alderdian izena emanda daudenek aukeratu dutela. Aginte bat jaso genuen, "Mandar obedeciendo" delakoa. Neuk, Andoaingo zirkuluko idazkari orokor modura, alderdian izena emanda daudenen erabakiei men egiten diet.

Agintaldia amaitzen ari da eta zu zeu politikagintzan berria zara. Zein da, kanpotik ikusita, 2015-2019 agintaldiaz egiten duzun balorazioa?

Agintaldi honetan hobekuntzak egon dira eta positiboa izan dela ikus dezaket. Baina gabeziak ikusten ditut. Hainbat erabakien inguruan botoa eman da, baina garatu gabe geratu dira. Adibidez, Gazte plana egin dago baina garatu gabe geratu da. Jakin badakit prozedura bat jarraitu behar dela, baina ahal dela prozedura horiek murriztea nahiko genuke.

Udal etxebizitzaren egitasmoa gauzatu arte denbora asko pasa da. Haur parkeak estaltzeko ekimena aspaldi onartu zen, baina estali gabe daude. Ea onartzen diren ekimenak arinago gauzatzea posible egiten dugun. **Hautes programari dagokionez zeintzu dira proposatzen dituzun neurri garrantzitsuenak?**

Oso proposamen landua dugu, orrialde asko dituen txostena da. Lehenik eta behin zerbitzu publikoei garrantzia handia ematen diogu, bereziki udal administrazioan. Pribatizatu ziren Udal zerbitzuen azterketa egin behar da, berriro Udal zerbitzu bilakatu daitezkeen. Ezin da onartu enpresa batek Udal zerbitzua kudeatzea, zeren eta herritarren eta udalaren artean bitartekariak sartzen dira. Eta

hor dirua galdu egiten da. Udalak hartu behar du ardura hori.

Azpieguratzen, Udal Liburutegia egitea premiazkoa da. Eta aparkalekuen arazoari irtenbidea eman behar diogu.

Auto elektrikoaren aldeko apustua egiten dugu, eta horretarako ibilgailuen karga elektrikoa bermatzeko puntuak ezartzea proposatuko dugu.

Hautes programan bildutako beste ideia edo proposamen batzuk aipatuko al zenituzke?

Gazte plana garatu behar da, eta adinekoei begira, zahartzarora eta bakardadea oso kezagarria dela iruditzen zait. Egoera txiroan bizi diren adinekoei ez dute laguntza eskatzen, eta pobrezia energetikoaren kasuak hortxe agertzen hasten dira. Adinekoei zentsoa egin nahiko genuke, eta bakardadean daudenekiko kontrola areagotzea eskatuko genuke.

Zein da zuen aurreikuspena maiatzaren 26rako?

Ez dugu aurreikuspenik egiten. **Baina zein da zuen sentsazioa?**

Oso sentsazio onak ditugu. Baina ez dugu aurreikuspenik egiten. Botoa emango digun jendea hurbiltzen zaigu, baina ez dago herri mailako ikerketa edo inkestarik.

Zergatik eman behar zaio botoa Elkarrekin Podemos alderdiari, igande honetan?

Gure egitasmoan sinisten dugu-lako. Herritarra erdigunean dugu, ez dugu bestelako interesik. Gure kudeaketa honestitate osoz egingo dugu. Ez dut aurretik egon den inor kritikatu nahi, baina uste dugu egin gabe dauden ekimen asko garatu daitezkeela. Biztanleen bizitza hobetzeko gauza asko egiteko daudenez, normala da gure egitasmoa onena dela pentsatzea.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer egingo duzue?

Emaitzen arabera ikusiko da. Hitz egiten hasteko garaia izango da. Gure kasuan, hitzarmenak egiteko garaian, Andoaingen alderdian izena emanda daudenek erabakiko dute.

"ZERBITZU PUBLIKOEI GARRANTZIA HANDIA EMATEN DIOGU, BEREZIKI UDAL ADMINISTRAZIOAN"



Maider Lainez, Andoaingo alkategaia PSE-EEren alderdia ordezkatzuz. PSE-EE

"Proiektu progresista eskaintzen dugu"

MAIDER LAINEZ ANDOAINGO PSE-EE ALDERDIKO ALKATEGAIA

Oposizioan boto gehien dituen alderdiko bozeramailea da. Hirugarren agintaldia du Andoaingo udaletxean, bigarrena alkategai modura

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zein ekarpen egin diezaioke PSE-EEk Andoaingo Udalararen gobernantzari?

Proiektu ezkertiarra, progresista, gertukoa, plurala eta errealista eskaintzen dugu. Pertsonengan eta bere gizarte-ongizatean oinarrituko den programa aurkeztu dugu.

Zer dela eta hartu zenuen berriro hautagai izateko erabakia?

Enpresa pribatutik politikara gerturatu nintzen, gauzak aldatzeko nahian. Norberaren ideologia zein den alde batera utzita, andoaindarrei gure bulegoa ireki diedan bezala, oraingoan Andoaingo Udalararena zabaldu nahi diet.

Azken lau urte hauetan zenbait aurrerapausu eman ditugu, izan dugun indarrarekin. Baina askoz gehiago aurreratu dezakegu, andoaindarrekin Andoainek behar duen aldaketa posible egiten badugu.

Zer da zuretzat Andoain?

Nire herria da, eta denon herria izatea gustatuko litzaidake.

Euskara bultzatzen duen herria; bizitzeko aukeratzen den tokia; herri bizia eta lan egiteko aukerak eskaintzen duen herria; leku seguru, anitz eta berdintasuneko; elkarbizitzeko herria; kanpokoek eta bertakoek gozatzen etortzeko aukeratuko duten herria. **Pozik zaude hautes zerrendarekin?** Gaztetasuna eta eskarmentua elkartzen dituen taldea osatu dugu, udalaren errealitatea oso ondo ezagutzen duena. Ideiak eta proiektuak ditugu eta zer egin behar dugun jakin badakigu. Oso harro nago.

Agintaldia amaitzen ari da. Nola baloratzen duzu 2015-2019 agintaldia?

EH-Bilduk ez du Udal baliabideen kudeaketa eraginkorra egin: 2017ko aurrekontua 23.039.076 eurokoa izan zen eta gerakina 5.395.709koa ("gastatu" gabe gelditu zena: %23a). 2018ko aurrekontua 22.209.642 eurokoa izan zen eta gerakina 8.497.877koa (%38a). Argi daukagu gerakina egon behar duela, baina ez portzentaia horietan.

Horrek, batetik, EH-Bilduren planifikazio eza izugarria eta kudeaketa kaskarra erakusten du. Eta, bestetik, EAJ-PNV, Gamos eta IU Irabazi –orain Podemos-eko zerrendan dauden zinegotziak– alderdiei galdetuko genieke, aurrekontuak onartu ondoren, ze nolako jarraipena egin dioten... haiek ere bere erantzukizuna baitute.

Bestalde, 2016an Udalak 5.493.745,08 euroko mailegua eskatu zuen. Legegintzaldian zehar, diru guzti hori gastatu da eta 2018an, mailegutik 103.581,93 itzuli ditugu. Hau da: 2019an gastatzeko 0,00 gelditzen da eta 5.390.163,15 euro itzuli beharko ditugu. Horra, datuak: bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

Zeintzu dira proposatzen dituzun neurri garrantzitsuenak?

Adinekoentzako zerbitzu gehiago: etxer-etxeko laguntza zerbitzuak zabalduko ditugu gure adinekoak era autonomo batean bizi daitezten. Esperientziaren Eskola sortuko dugu, haien bizipenak gal ez daitezten.

Gazteei begira, Gazteen Kontseilua sortuko dugu, asteburuetarako bereziki jarduerak dinamizatuko dituen. Beste ekimenen artean, Gazte Gaua sortuko dugu.

Emakumei begira gune beltzen mapa eguneratuko dugu eta 2018an proposatu genuen sexu-erasoen kontrako APP mugikorra ezarri-

ko dugu. Emakumeen etxea martxan jarriko dugu ere.

Programako beste ideia edo arlo batzuk aipa itzazu.

Langabeziaren kontrako borroka gure nortasun-ezaugarrietako bat da. Eta horretan jarraituko dugu. Komertzio bizia behar dugu: ekintzaileentzako diru-laguntza lerroa sortuko dugu eta hutsik dauden lokaletan merkataritzako denda berriak ireki daitezten sustatuko dugu. Aldi berean, gaur egun dauden tokiko merkataritzarako baliabide gehiago bideratuko ditugu.

Turismo ekologikoa eta jasangarria nahi dugu: beste instituzio batzuekin lankidetzan arituko gara Leitzaran Parke Naturala izendatu izan dadin.

Andoaindarrek edukiontzi gris nahi dutenean irekitzeko ahalmena izango dute, organikoarekin bezala; estali gabeko igerilekua eta txakurrak solte ibil daitezten guneak sortu, aparkaleku gehiago egokitu eta sustatu, pantaila akustikoak ipini... gauza asko daude egiteko.

Zein da zuen aurreikuspena maiatzaren 26ra begira?

Andoaindarren laguntzari esker apirilaren 28an, sozialistok Andoain lehendakaria izatea lortu genuen. Berriro lortu nahi dugu. Lagun diezagutela hauteskontziak boto sozialistez betetzen: Egizue posible berriro!

Zergatik eman behar zaio botoa zure alderdiari, igande honetan?

Maiatzaren 26an bi aukera daude: orain arte bezala jarraitzea edo aldaketa errealitate bihurtzea. Ez zaitez bitartekariengan fidatu eta argi izan: Alderdi Sozialistari emandako botoa da aldaketa bermatzen dizun bakarra.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer?

Podemos-eko kideek jada adierazi dute lehentasunezko bazkide bezala EH Bildu aukeratu dutela. Hori entzuteak izugarritzko pena eman digula aitortu behar dugu. Aldiz, gu alderdi guztiekin bilduko gara. Guretzako galdera ez baita zeinekin, zertarako baizik: programak izango dira gure abiapuntu.

"GEHIAGO AURRERATU DAITEKE ANDOAIN EK BEHAR DUEN ALDAKETA POSIBLE EGITEN BADUGU"



Juan Carlos Cano, Andoaingo alkategaia PP alderdia ordezkatzuz. PP

"Andoainen sektarismoa nabari dut"

JUAN CARLOS CANO ANDOAINGO PP ALDERDIKO ALKATEGAIA

Gipuzkoako Ahaldun Nagusi izateko hautagaia izateaz gain, alkategaia ere bada. Iraganean izandako kargua berreskuratu nahiko luke. Politikan Andoainen hasi zen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Elkarriketa PPren egoitza nagusian egin zen, Donostian.

Zein ekarpen egin diezaioke PP alderdiak Andoaingo Udalaren gobernantzari?

Alderdiak eta, bereziki nik neuk, iraganean jasotako babesa berreskuratu nahiko genuke. Foru Aldundian eta udalgintzan dudana

esperientzia gure ekarpen handiena da. Une hauetan zerbait bada garrantzitsua, honakoa da: Erakundeak ez dira bakoitza bere kabuz aritzen. Erakundeen arteko lana geroz eta garrantzitsuagoa da. Andoainen bi zinegotzi izatera iritsi ginen, eta hori dela eta urratsa ematea erabaki dut.

Zuretzat zer da Andoain?

Nire abiapuntura itzultzea da. Politikagintzan Andoainen murgildu nintzen. Oso oroitzapen onak ditut, eta baita oso txarrak ere. Politikaz dakidana Andoainen ikasi nuen. 1995ean hartu nuen kargua, lehen aldiz. Kargu hartze ekitaldia kafkianoa izan zen. Adinekoen mahaian, detai-

le modura, espetxetik ekarritako ETAkide bat zegoen. Plenoa amaitzean, Jose Luis Lopez de Lacalle hurbildu zitzaidan. Ez nuen lehendik ezagutzen. Eskua luzatu zidan, eta laguntza eskaini zidan. Denborarekin Lopez de Lacallerekin egin zutena aski ezaguna da. Oso barnean ditudan oroitzapenak dira.

Gobernu ardurak izatera iritsi zineten, 2003-2007 agintaldian...

Ogasuna eta Gizarte politikak, bi ardura horiek gure gain hartu genituen. San Juan bataiatzailean, orduko hartan, lan gatazka handia izan zen. ELAren esperientzia izan zen, oso berritza.

Urte batzuk eman ditut Andoaindik kanpo, baina esperientzia haiek herriaren ezagutza eman didate.

Zein da distantziatik Andoaingo udaletxeko dinamizazio egiten duzun balorazioa?

Hainbat pertsonen harremanetan jarri naiz. Garai haietan ez ziren hautes-zerrendan aurkezteko animatu, baina gertu sentitzen ditut. Udaletxeko dinamizazioa buruz, zaila da lana oso gaizki egitea. Azken lau urteotan, ordea, sektarismoa nabari dut. Bakoitzak bere alderdikoentzat lan egiten duela dirudi. Baina, esan ohi dudana bezala, dagoeneko udalgintzan ez gaude azpiegitura handiak kudeatzeko. Pertsonen alde gaudelanean. Hurrengo urteetan, Udal aurrekontua osatzeko garaian, adineko pertsonen bideratutako zerbitzuekin estuasiak sortuko dira. Udala funtsezkoa da, konpententziak izan ala ez izan. Arazoa antzematea funtsezkoa da, eta hori gertuko instituzioak egin dezake. Bakarririk bizi diren adinekoen kopurua, esaterako, oso adi egoteko kontua da.

Zein da zure aurreikuspena, maiatzaren 26ra begira? Hautagaiztatzea lortzeko aukera baduzu?

Oroitzapen ona utzi izana, hori da nire itxaropena. Gure inguruan egon daiteke beste aukera politikoetara puntualki joan dena, baina espero dut nire ibilbideaz oroitzapenen bat geratu izana. Herriar horiek mugiaraztea espero dut. Zaila da, baina horixe da nire itxaropena. Horregatik aurkeztu naiz.

Andoaindarrek zergatik eman behar diote botoa PPri, igande honetan?

Pertsonen aldeko apustua egiten dugulako. Udaletxea gertuko erakundea da, eta gaur egun ditugun loturekin, Udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko loturak areagotu behar dira. Hoditeria, argiteria... alor horretan lana egin behar da. Gertuko enplegua sustatu behar da, bereziki adinean gora doan langabetuari irtenbidea eskaintzeko.

Akordio politikoei dagokionez, maiatzaren 27tik aurrera zer?

PSE-EErekin lan egin dut Andoainen, eta Batzar Nagusietan lankidetzan aritu naiz EAJ-PNVrekin. EH Bildurekin ez nuke akordiorik egingo, baina ez naiz erradikala. Foralista naizenez, hitzarmenaren aldekoa naiz. Baina gobernua osatzeko ez nuke EH Bildurekin osatuko. Ezta, ziurrenik, Elkarrekin Podemosekin ere. Unean uneko erabakietarako, ordea, denekin adosteko prest nago.

"EH BILDUREKIN EZ NUKE AKORDIORIK EGINGO, BAINA EZ NAIZ ERRADIKALA"



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Andoaingo EAJ-PNVko buruzagiak Udal hauteskundearen ibilbidean. EAJ-PNV

Azken berrogei urtetako EAJ-PNVko alkategaien bilkura

Udal hauteskunde demokratikoak ospatu zirela 40 urte bete direnean, EAJ-PNVk alkategaiak elkartu zituen

Erredakzioa ANDOAIN

1979an ospatu ziren lehen udal hauteskunde demokratikoak. Urtemugarekin bat eginez, EAJ-PNVk urteotako buruzagiak elkartu zituen. Hots, Ramon Ansa, Patxi Irigoras, Juan Mari Artola, Garbiñe Egibar, Mikel

Arregi, Iñaki Egibar, Andoni Baltasar eta Mari Jose Izagirre. Izagirrek honakoa adierazi zuen: “Andoaingo EAJk irmo eutsi die hasieratik defendatu izan dituen ideiei: demokrazia, aber-tzaletasuna, bakea, herrigintza eta lanerako konpromisoa”.



Kanpainako azken hitzorduak

Maiatzak 23, osteguna

Urnietako EH Bildu:

19:00 Kanpaina itxierako ekitaldia.

Mertxe Aizpurua
Espainiako Kongresuko
Diputatu eta
Ainara de Miguel
alkategaia.
Lekaio.

Maiatzak 24, ostirala

Andoaingo EH Bildu:

19:00 Kanpaina itxierako ekitaldia.

Maddalen Iriarte Eusko
Legebiltzarreko diputatua,
Amaia Azkue Batzar
nagusietarako hautagaia eta
Andoni Alvarez alkategaia.
Goikoplaza.



Jon Zulueta, Miren Begiristain eta Ainara Rodriguez Andoaingo hautagaiak. EHBILDU

EH Bilduren kanpaina itxierako ekitaldia Andoain

Maddalen Iriarte, Amaia Azkue eta Andoni Alvarez hizlari arituko dira ostiral honetan, kanpainaren itxieran

Erredakzioa ANDOAIN

Amaia Azkue billabonatarra Batzar Nagusietarako hautagaia da, eta ostiral honetan hizlari arituko da. Batzar Nagusietara Andoaingo hiru hautagai aurkezten dira: Miren Begiristain, Jon Zulueta eta Ainara Rodriguez.

Kanpainako itxierako ekitaldiak Euskal Herriko EH Bilduko bozeramaileetakoa hurbilduko da: Maddalen Iriarte. Ezaguna den bezala, Iriartek haurtzarora Andoain igaro zuen. Eta, nola ez, ekitaldian Alvarez alkategaiak ere hitza hartuko du.

Emaitzak eta lehen balorazioak, igandean Aiurri.eus gunean

Andoaingo eta Urnietako emaitzak jarraitzeko aukera webgunean eta sare sozialetan

Erredakzioa ANDOAIN

Gau luzea izan daiteke igandekoa, hiru hautes-ontzi ezberdinetako botoak zenbatu beharko baitira. Sobre urdinean doan botoa Europako Legebiltzarreko izango da. Sobre laranja, Batzar Nagusietakoa. Eta sobre zuria Udal

hauteskundeetakoa. Aiurriko lantaldeak Aiurri.eus webgune-tik jarraipen berezia egingo du. Udal hauteskundeetan azpimarrarrit, Batzar Nagusietako eta Europako Legebiltzarreko emaitzak ere argitaratuko dira igande gauean.

IRITZIA

JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Ikusmina piztu zuen maiatzaren 15eko debata, Basteroko ekitaldi aretoa ia betetzeraino. Aiurri.eus gunean ikusgai daude bideoak, aztergai arabera sailkatuta. Debatea hiru hautagaitza nagusien artean izan bazen ere, Andoainen igande honetan gobernuaren ardura nori eman erabakitzeko bost alderdi politiko izango dira aukeran. Aste honetako Aiurri, irakurleek bost hautagaien proposamenak aztertu ahal izango dituzte.

Debatera itzuliz, ezin detaile bat aipatu gabe utzi. Larramendi Bazkunari esker ahalbidetu zen aldi bereko itzulpen sistemarekin, euskara menperatzen ez duten herritarrek ere Basterora hurbildu ziren. Moderatzaile lanetan murgilduta, ez nintzen detaileaz unean bertan jabetu. Hurrengo orduetan izan zen. Ikusleen artean Andoaingo hiru familia politiko nagusietako herrikideak parez pare nituen: Sozialistak, jeltzaleak eta ezkertiar abertzaleak. Elkarren ondoan, giza eskubideen urraketa nagusienak pairatutako herritarrek: ETaren zuzeneko eta zeharkako biktimak, estatuaren errepresioa jasandakoak..., guztiak ere politikari buruzko ekitaldian. Adi-adi egon ziren, irri egiteko tartek ere sortu ziren. Normaltasun osoz. Aiurrik sustatutako ekimen batean gertatu zen hori. Detallearekin jabetu nintzenetik nire baitan bizi dudana poza ez da txikia.



Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugarte Mendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus

Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz



AIURRI

'Ibili Andoain', kulturaz blai

Buruntzako San Martin elizaren aztarnategira egindako bisitaldiarekin amaiera eman zioten "Ibili Andoain" egitasmoari. Asteazken goizean, Kontzejupetik Buruntza aldera abiatu ziren. Bertan Andoaingo iraganaren inguruko azalpenak eskaini zituzten. Goizari amaiera emateko, ibiltariak Santakrutz jubilatuen ekimeneko kideek egindako paella jan zuten.

Herri bideen inbentarioa

Maiatzaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Andoaingo Udalak osatutako Herri-bideen inbentarioa argitaratu zen. Orain nahi duen herritarrek inbentario hori osatu duen langilearekin hitzordua eskatu eta zalantzak argitu ditzake. Hitzordua eskatzeko: 943 30 08 30 (luzapena 333). Udalak dagoeneko etxe eta baserrietara zabaldu du mezua.



AIURRI

Bertsolari gazteen saioa Bastero Kulturugunean

Aita Larramendi ikastola, La Salle-Berrozpe eta Ondarreta ikastetxeetako ikasleek ikuskizuna eskaini zuten Basteron. Antzerkia eta musika ardatz hartuta, saioa eskaini zuten Basteron. Ikasleek bapatekotasuna eta umorea ederki asko jakin zuten uztartzen, eta pertsonaia ezagu askori buruzko parodiak egin zituzten. Sketx ezberdinetan; esaterako, Txirrita edo eta Maialen Lujanbio rap zaleekin batera abesten jarri zituzten, modurik natural eta alaienean.

Ekimenaren dinamizatzaile den Unai Muñoa bertsolariak adierazi zenez, "gaur oholtzaratzen ari diren ikasle gazteek badaukate meritua, ehunka pertsonen aurrean kantari jartzea ez delako batere erraza. Horrexegatik, helduon aitormena eta miresmena merezi dute".

Badira 15 urte Euskal Herriko Bertsotzaleen elkarteak "Gu ere bertsotan" ekimena abian jarri zutela, Andoaingo Udalaren babesarekin eta ikastetxeekin elkarlanean.

Bertsolari gazteen saioa argazki-bilduma eta bideo sorta ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



AIURRI

Zurekin
GIPUZKOA
gara

ehbildu

Ekitaldia

Maiatzak 24 · 19:00

☀ Goiko Plaza

📍 Ondarreta ikastetxea

Andoain





Dozenaka herritar isilean bildu ziren, San Juan plazan. AIURRI

Hernandezen aldeko bilkura isila

Fernando Hernandez salesiarraren hilketak gaitzesteko bilkura isila deitu zuen Udalak, joan zen astelehenean. Udaletxearen kanpoaldean bildu ziren Salesiar ikastetxeko ordezkariak zabala, alderdi guztietako udal ordezkariak eta bizilagun ugari.

Xabier Lasa URNIETA

Fernando Hernandez maiatzaren 18an hil zuten, aihotza erabilia. Burkina Fason Salesiarrek Bobo Diolaso hirian duten egoitzan bertan izan zen ezbeharra. Ikerketen arabera, sukaldari lanetan aritutako pertsona bat izan daiteke ustezko hiltzailea.

Fernando Hernandez Salamanca probintziako Ledesman herrian jaio zen 1959an, baina gaztetan familiarekin batera Urnietara heldu zen. Egun, ama eta bi anai bertan bizi dira. Salesiarren ikastetxean ikasi zuen eta bertan salesiar bihurtu zen. Munduko behartsuenen aldeko bokazioa piztu zitzaion kongregazioan, eta horrela, misio lanari bere bizi-tzako 35 urte eskaini zizkion. Formakuntza teknikoan espezializatu zen Salesiar ikastetxean, eta ondoren Santanderren teologia eta filosofia ikasketak buru zituen. Ikasketak amaituta, bere ahalegina gazte txiroen hezikuntza eta formakuntza akademikoa eskaintzea izan zen. Benin, Togo eta Burkina Fasoko herrialdeetan jardun zuen, urte guzti horietan. Hernandezek Afrika eta afrikarrak maite zituen, eta


Udal adierazpena

- Urnietako Udalak bere babesa, elkartzuna eta maitasuna adierazi nahi die Fernandoren familiartekoei eta lagunartekoei, baita Urnietako salesiarrei ere, bizi duten egoera garrantz honetan.
- Indarkeria daraman edozein ekintzaren aurrean bere arbuio eta gaitzespen irmoena adierazten du.
- Indarkeriaren edozein motatako adierazpenen aurrean esku-hartzeko konpromisoa azpimarratzen du, eta berau ezabatzea sustatzen duten neurriak babesteko eta bultzatzeko borondatea berresten du.

han bertan lurperatu dute, bere borondatea horixe baitzen. Familiako zenbait kide Burkina Fasora joan dira egunotan, azken agurra eskaintzera.

URNIETA

BAT EGINIK



MIKEL PAGOLA TOLOSA
URNIETAko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

ANDOAIN

BAT EGINIK



MARI JOSE IZAGIRRE ITURZAETA
ANDOAINeko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

GIPUZKOA

BAT EGINIK



MARKEL OLANO ARRESE
GIPUZKOAko DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA

EAJ-PNV.EUS



EMAN BOTOA



Olatz Peñagarikano eta Ainara Loiarte Andoaingo Mintzalaguna eta Bidaide euskararen aldeko egitasmoetako ordezkariak dira.

Euskararen transmisioa familia giroan

Euskararen transmisioa familia giroan sustatzea, horixe da tokiko administrazio askoren eta euskararen aldeko mugimenduen erronka. Asmoa beretsua da, toki guztietan: Hango eta hemengo herrikideak euskararen bidera erakartzea

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Herrigune gehienetan ekimen interesgarriak daude. Andoainen, esaterako, Bidaide izeneko ekimena sustatzen ari dira, emaitza bikainekin.

Familia giroan euskararen transmisioa bermatzeko zein baliabide eskaintzen dituzue?

Ainara Loiarte. Familiei dagokienez, Bidaide izeneko programa garatzen ari gara. Mintzalaguna egitasmoaren adar bat dela esango genuke.

Olatz Peñagarikano. 2012tik hona ekimen ezberdinak abian jarri dira, urteen poderioz doituz joan direnak. Hasiera batean jolasa

euskaraz sustatzea zen helburua. Gerora, ekimenak aberastuz joan dira. Urtean zehar hainbat ekin-tza antolatzen genituen, eta parte hartzen hasi zen kopurua igotzen joan zen. Bidaide izenarekin ezaguna da ekimena, une honetan. Ipuin kontaketa saioak, dantza ikastaroak, sukaldari tailerrak, jolas kooperatiboak... ikasturtean zehar dozena erdi bat jarduera antolatzen ditugu. **Erabat euskalduna ez den familiaren kasuan, egunerokoan euskara erabiltzen hasteko zein aholku emango zenioke?**

Olatz Peñagarikano. Kasuan kasu aztertu beharko litzateke. Gura-

soetako bat euskalduna bada saia daitezela haurrarekin beti euskaraz egiten. Eta euren arteko harremana ere euskarazkoa izaten ahalegindu daitezela. Bestela haurrak euskara eskolako eta gauza akademikoetarako dela barneratuko du. Aisialdia erdarekin lotzera joko du.

Ainara Loiarte. Familia horien kasuan, euskara aisialdiarekin uztartzea lortu behar da. Esperientzia dibertigarriak euskaraz egiteko aukera ematea ezinbestekoa da.

Zein erreferentzia aipagarri ezagutzen dituzue, Euskal Herrian barrena?

Olatz Peñagarikano. Herrietan euskararen erabilera sustatzeko geroz eta ekimen gehiago daude, eta hori pozgarria da. Errenterian, adibidez, 'Familia jolasean' egitasmoa martxan dago. Astean behin euskara eta jolasa uztartzeko hitzordua dute, ordu eta erdikoa. Begiraleen laguntzaz, ekimen ezberdinak egiten dituzte. Getxon, adibidez, 'Olgetan euskaraz' ekimena ezaguna da. **Ainara Loiarte.** AEK erakundeak, bestalde, 'Familiak euskaraz' izeneko egitasmoa antolatzen du. Gurasoak eta familiak barnetegian izaten dira, euskara ikasten ari den guraso hori gehienbat euskaraz inguratuta bizi dadin. Hizkuntza ohiturak aldatzeko garaian eraginkorra izan daiteke.

Euskara ikasten ari diren guraso asko dago. Euskal jendartea jabetzen al da guraso horien ahaleginaz?

Olatz Peñagarikano. Ahalegin handia egiten dute, bai. Bestalde, kalean askotan euskaraz bada-kien jendea gazteleraz hitz egiten ikusten dugu. Euskarara murgiltzeko ahalegina egiten ari den horri ez zaio behar adi-na aitortza egiten, ez. Euskara ikasten ari den horrekin solasean ari garenean, euskaldunok erosotasunagatik gaztelerara jo ohi dugu. Solasaldi horietan euskara lehenesteko ahalegina egin beharko genuke.

Ainara Loiarte. Euskaldunei pazientzia eskatuko nieke. Ikasten ari den pertsona horrek ikasitakoa praktikan jartzen ez badu, ez du erabilerarako pausua emango. Eta pauso hori ematea oso garrantzitsua da. Mintzalaguna bezalako programa horrexegatik da interesgarria, bi edo hiru pertsona elkartu eta beraien artean ohiturak aldatzen hasteko giltza delako.

Euskararen bidean dagoenari laguntza eman beharzaio, ezinbestean. Lehen hitza euskaraz eginez, edo asmatzen ez duen kasuan esaldia amaitzen lagunduz.

Ainara Loiarte. Bai, eta zerbait gaizki esaten badu, bromarik ez egitea. Hortik jarraitzea lortu behar baitugu, azkenean hobetzen joateko euskaraz aritzea besterik ez baitago. Arian arian, lotsa galdu eta aurrera jarraitu beharra dago.

Olatz Peñagarikano. Ikasten ari direnekin enpatia garatzen ari garela esango nuke, baina asko kosta zaigu besteen lekuan jartzea eta aukera horiek ematea.

Nola lagundu?

Tokian tokiko euskara lanskaiten euskararen erabilera sustatzeko informazioa aurki daiteke. Egunerokoan, bestalde, guraso euskaldunek euskararen bidean direnei laguntza eskaini behar diete. Ez da lan handia, eta eskaintzen den laguntza euskaldun berriari oso baliagarria izango zaio.

Euskaraldia zenbateraino izan da garrantzitsua?

Olatz Peñagarikano. Euskaraldiak buruan ez genuen hausnarketa egitera eraman gaitu. Ohituraz, gazteleraz hitz egiten genion jendeari. Edo lehen hitza gazteleraz eginda gazteleraz jarraitzen genuen. Euskaraldia iraganeko ohiturak aldatzen joateko eta barne hausnarketa sakona egiten hasteko baliagarria izan zen. Horrelako ekimenak beharrezkoak dira.

Nola murgildu daiteke familia erdaldun bat euskalduntze prozesuan?


Olatz Peñagarikano. Jendea euskaraz agurtuz has daiteke, eta haurraren irakaskuntza prozesuan inplikatur. Haurrak gurasoen interes hori eskertzen duela esango nuke. Umeak marrazki bizidunak ikusten baditu, pasiboki bada ere, gakoa euskara pixkanaka egunerokoan sartzen hastea da.

Ainara Loiarte. Dakiten gutxi hori erabiltzen has daitezela, eta hortik aurrera erabilera areagotuz joan daitezela. Besteak beste, denboran zehar ikasten doazen hitzak eta esaldiak erabiliz.

Eguneroko kasuetara itzul gaitzen. Nola lagundu familia bati eskolan, parkean?

Ainara Loiarte. Guraso euskaldunen jarrera garrantzitsua da, gehienbat ikasten ari den pertsona horri lehen hitza euskaraz egiteko garaian. Hori eginda, pixkanaka hizkuntza ohiturak aldatuz joango dira.

Olatz Peñagarikano. Garrantzitsua da haurrek gurasoko koherentziaz jokatzeko ikustea. Haurra euskaraz egiteaz gain, haurrak bere gurasoak ingurukoekin euskaraz hitz egiten ikusi behar ditu. Haurrak inkoherentzia horiez oso kontziente baitira.





Jubenil mailakoak Gipuzkoako txapelketako azpitxapeladun geratu dira. LEIZARAN

Senior mailako mutilen garaipen garrantzitsua Legazpin

ESKUBALOIA Igoera fasean Legazpiko kiroldegian 30-33 irabazi eta gero, partida erabakiorra Allurralden

Erredakzioa ANDOAIN

Garaipena lortu eta gutxira, zaleen babesa eskertu zuen taldeak. Eta deialdi berezia egin zuen Leizaran eskubaloit taldeak, 1. mailara igotzea baitago jokoan: "Hurrengo partidari txapelketa dugu jokoan, eta herria beharko dugu bultzada hori emateko".

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

2. LURRALDEKAKO AZKEN FASEA
Legazpi-Leizaran **30-33**

SAILKAPENA

1	Leizaran	14 puntu
2	Tolosa B	13 puntu

LIGAXKAKO AZKEN JARDUNALDIA

10:00 Leizaran-Urola / Ig. 26



Kadete mailakoak Gipuzkoako txapelketako azpitxapeladun geratu dira. LEIZARAN

Jarduera ugari Urnietan

KIROLA Benjamin mailakoentzat klasikoa bilakatu den Benjamin jaia larunbat honetan ospatuko da. 3 eta 6 urte bitarteko hainbat kirolari hurbilduko dira Urnietara, larunbat goizean. Arratsaldean bi hitzordu gehiago: 16:00tan gimnasia eta judo erakustaldiak Kiroldegian. 16:30ean, berriz, gaztetxoentzako txirrindularitza lasterketa Denda Berri eta Xauxar artean.



Igor Amantegi bosgarren EHME mendi lasterketan



UNAI MARTINEZ

Leitzan hasi eta amaitu zen Euskal Herriko Mendi Erroka (EHME), eta proba horretan Andoainen bizi den Igor Amantegi urnietarra onenen artean aritu zen. Gaintza, Irumugarrieta, Putzuzar, Lekunberri eta Ireber zeharkatu behar zituzten. Ion Azpiroz berastegierra nagusitu zen (6:45:07), eta Igor Amantegi bosgarren helmugaratu zen (7:11:21). Argazkia atera zion Unai Martinezek, Irumugarrietako gainean. Andoaingo eta Urnietako partaide gehiago: Iker Mujika, Ivan Piñon, Imanol Garcia, Igor Iztueta, Iñaki Narbarre, Iosu Mikelarena, Urko Otaño, Ganix Esnaola, Joseba Cisneros.

Iturzaeta memorialeko partida gehiago jokatu asteburuan

Euriak bere agerpena egin zuen, aurreko larunbatean, baina hala ere partidak jokatu ziren. Asteburu honetan gehiago. Beti bezala larunbatarekin, Sorabillan.



Xuban Ezeiza urnietarra, joan zen igandeko mendi lasterketan. ZANPATUZ

Xuban Ezeiza nagusitu zen Ereñotzuko mendi lasterketan

LASTERKETAK Xuxan Ezeiza sasoiko iritsiko da Zegama-Aizkorri mendi lasterketara

Erredakzioa URNIETA

Mendi lasterketak han eta hemen antolatzen ari dira, eta aurreko asteburuan Beterri-Buruntzan egokitu zen. Ereñotzu aldeko lasterketan, Andoaingo eta Urnietako hainbat korrikalari irten zen. Emaiz txukunak lortu zituzten.

SAILKAPENA

MAIATZAK 19, IGANDEA

Urnietarrak

1.	Xuban Ezeiza	1:07:18
11.	Mikel Legarreta	1:14:37
12.	Unai Legarreta	1:14:48
42.	Ainhoa Jauregi (2. nesketan)	1:26:44
56.	Xabier Irastorza	1:31:46
57.	Xabier Almorza	1:32:15
64.	Jon Iturbe	1:33:39
77.	Ahetze Etxeberria	1:36:17
78.	Gari Albizu	1:36:52
85.	Ainhoa Arruti	1:38:42
93.	Eñaut Ayerza	1:41:55
101.	Aitor Iturralde	1:43:02
108.	Asier Belaunzarán	1:43:38
116.	Alain Azkue	1:45:58
122.	Ibai Usabiaga	1:47:30

Andoaindarrak

9.	Aritz Mujika	1:13:20
43.	Xabier Alcorta	1:27:17
68.	Antonio Jimenez	1:34:13
79.	Nagore Arizaga	1:37:24
139.	Alfredo Rodriguez	1:53:19
163.	Iker Etxebarria	2:10:30



Ainhoa Jauregi urnietarra. ZANPATUZ

Andoain Herriartekoan

HERRIARTEKOA Lau puntuko alde estuarekin, Erreterriak aurrera egingo du.

Laruzko paleta:

Erreterria (Eskisabel -Abel)	35
Andoain (Iradi-Lete)	28

Pala motza:

Erreterria (Yorel-Ruben)	40
Andoain (Altuna-Rekalde)	25

Eskuz, binaka. Joanekoa:

Andoain-Azkoitia	0-3
------------------	-----



Igoera lortzeko aukera Urnietako kiroldegian

ESKUBALOIA Urnieta KE klubeko senior taldeak 36-32 galdu zuen Bilbon, Escolapiosen aurka, harmailetan giroa berotzen 150 urnietar zirela. Igandean igoerako ligaskako azken partida jokatu dute, Askartzaren aurka (12:15). Zaletuen animoak behar dituzte

Andoni Urbistondo URNIETA

Gauzak horrela, igandeko partidaren Urnietan garaipena eta Legazpin Escolapios taldeak ez irabaztea gertatu behar dira, igoera ziurtatzeko.

Lehen aukeran kale. UKEko eskubaloien senior taldeak ezin izan zuen igoerako aukera baliatu Bilbon. Sari potoloa zain: 2. Nazional mailan lehiatzeko txartela, garaipena lortuz gero. Baina galdu ginen. Escolapios-ek berak ere lehen postua lor zezakeelako, aurreko hiru partidatatik bi irabazita. Aintzat hartu behar da, Bilboko taldea Bizkaiko txapeladuna izan dela, Liga osoan partida bakar bat bera galdu gabe. UKE hirugarren sailkatu da Gipuzkoako Txapelketan. UKE aukerarik gabe geratu zen hasiera-hasieratik. Defentsan ahul, bizkaitarrek eraso guztietan etekina lortu zuten, izan gola edo izan bi minutuko zigorren bat. 18-11 iritsi ziren atsedendira, eta 50. minutura arte ondo eutsi zioten errentari. Orduan suspertu zen UKE, eta 4-9ko partzial batekin 36-32 hurbildu zen markagailuan. Galduta ere, average-a garrantzitsua izan zitekeela bazekiten urnietarrek, eta hortik, bukararaino ahalik eta gol tarte txikienarekin galtzeko grina.

Eta orain zer?

Hiru talde daude 3-1 balantzearekin, puntu kopuru berarekin: Munttarpe Lezokoa, Escolapios Bilbokoa eta UKE Urnietakoa. Berdinduta daudenez, euren arteko partiden emaitzak erabiltzen dira berdinketa desegiteko, eta hor Munttarpe da nagusi. Lezokoek Bergararen aurka jokatu dute igandean etxean, bai edo bai azken postuan sailkatuko den taldearen aurka. Gauzak normal, Lezokoek irabaziko dute, aise. Escolapios-ek ia ezinezko du lehen postua lortzea, Legazpin



Urnietako zaletuak eta jokariak Bilbon jokatu zen azken partidaren, elkarrekin ateratako argazkian. Erakustaldi ederra ematen ari dira guztiak, jokariak eta zaletuak. UKE

irabazita ere, biko eta hiruko berdinketetan galtzaile delako Munttarperekin. UKERI dagokionez, aukera polita du. Askartza menderatu eta Escolapios-ek Legazpin garaipena lortuko ez balu, 2. Nazional Mailara igoko litzaiteke. Munttarperekin berdinketa emango bailitzateke kasu horretan. Baina UKEk bi taldeen arteko average partikularrean irabazle da (UKEk 27-30 irabazi zuen Lezon).

Ez dago igotzeko bide bakarra

Lidertzan dauden hiru taldeek irabaziko balute, Munttarpek lortuko luke txartela. Hala izanez gero, bigarren postuan nor sailkatuko den argitu beharko da, Escolapios edo UKE (Legazpi ere aukera txikiren bat badu, UKEk galduz gero). Hori lortzen duenak play-off txapelketa bere etxean antolatzeko saria lortuko du, sari potoloa. Etxean bertan lor daitekeelako igoeraren bigarren txartela.

UKERentzat ekuazioa hauxe da: Escolapios-ekin puntuetara berdinduta dago, average partikularrean ere bai, eta average orokorrean +6 dira bizkaitarrak nagusi. UKEk Bilbokoen +6 hori ezabatu behar du, Askartza ahalik eta gol tarte handienarekin menderatuz.

Zale sutsuak Urnietatik Bilbora

Autobus bi bete ziren Bilbora joateko, eta beste hainbat autotan joan zen. Urnietako 150 lagun pasa bildu ziren harmailetan, batzuk lasai-lasai, besteak zintzurra ondo urratua, likido faltarik ez bazen ere. Etengabe animatu zuten, partida hasieratik maldan gora jarri bazen ere, eta bukaeran, eta pabilioitik atera zirenean agur beroa eskaini zieten jokari denei. Igande honetarako 11.00an jarri dute hitzordua Guria jatetxean, kiroldegiraino kalejiran joateko.

2. NAZIONAL MAILARA IGOERA

SENIOR MAILAKO LIGAXKA

Escolapios A-Urnieta **36-32**

SAILKAPENA

1	Munttarpe	6 puntu
2	Escolapios A	6 puntu
3	Urnietakoa	6 puntu
4	Legazpi	4 puntu
5	Askartza	2 puntu
6	Soraluze Bergara	0 puntu

LIGAXKAKO AZKEN JARDUNALDIA

12:15	Urnietakoa-Askartza / Ig, 26
12:15	Munttarpe-Soraluze / Ig, 26
12:15	Legazpi-Escolapios A / Ig, 26

IGOERA LORTZEKO AUKEKAK

- Lehen sailkatua zuzenean igoko da.
- 2-5 postuetan sailkatutako arteen final four delakoa. Irabazten duena igoko da.



Sanchez eta Karra, erasoan. UKE

Egoitz Karrazedori elkarriketa

Escolapiosen aurkako porrota aztertu al duzue?

Astelehenean entrenamendu hasieran aztertu genuen, eta hainbat jokari urduri, lotuta kantxaratu ginelu uste dugu. Partidaren garrantziagatik, jendearen presentziagatik... ikasteko beste aukera bat ere bada, akatsa ez errepikatzeko. Txar-txarrean, oraindik igoera zuzena lor dezakegula, eta hala ez bada, play-offa etxean jokatzeko helburua gauza dezakegula.

Nola aurreikusten duzu azken jardunaldia?

Gakoa Legazpin dago. Guk fisikoki kili-kolo dauden jokariak berreskuratu behar ditugu, eta gurea egin. Askartzari irabazi, eta Legazpi Escolapios-en aurka berdindu edo irabaztea. Zumarragan jokatzeko dute, Legazpiko kantxa ez dagoelako erabilgarri, baina jakin ahal izan dugunez, irabazteko asmoarekin jokatu dute, nahiago baitute play-offa Gipuzkoan jokatu, Bizkaian baino.

3. izanda ere, ziurrenik

UKEk du igotzeko portzentaje aukera handiena.

Bai, ze Munttarperen aurkako berdinketa gure alde dugu. Etiket kanpo irabaztea zaila da

fase honetan, berdinketa handia da. Munttarpek berea irabaziko du, Bergararen aurka, ez baitauka ezer jokoan. Guk gurea ere irabaziko dugulakoan nago, Askartzaren aurka. Legazpi-Escolapios partida da gakoa.

Igoera gabe, play-offa geratzen da, eta etxean jokatzeko aukera.

Ez da gutxi. Orain dela hiru denboraldi ez zegoen aukera hori. Igandean igoera zuzena lortzen ez badugu, play-offeko aukera geratuko zaigu.

Nola jokatzeko da beste emaitzaren berri zehatz izan gabe?

Ba zurean zentratuz eta garaipena lortzen saiatuz. Askartza ahalik eta gol tarte handienarekin menderatu behar dugu, 6 goleko aldea baitu Escolapios-ek average orokorrean. Aulkian norbaitek informazioa izango duela pentsatzen dut.

150 lagun Bilboko partidaren. Igandean ere kiroldegia labe bat izango da...

Eskerrak eman, jendeari. Usurbilen aritu izan naizen urte luzeetan, etxetik kanpo ez dut halako jendetzarik ikusi, eta beraientzat igoera lortzen ahalginduko garelako esan baino ez.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 24

URNIETA Pailazoen emanaldia

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen "Musua" ikuskizuna. Sarrerak Urnietako BKN eta Andoaingo BKNn eta Enaitzan salgai, 7 eurotan. Egunean bertan, azken sarrerak aretoan bertan salgai. **17:30, Egapeko jolastoki estalia.**

ANDOAIN Dantza emanaldia

Hogar Extremeñoren kultur astean dantza emanaldia: Zuen, Donostiako Etxe extremeñoa eta Urki. **20:00, Bastero.**

LARUNBATA 25

ANDOAIN Irekiera ekitaldia

Extremadurako kultur astearen irekiera. **12:30, Hogar Extremeño.**

URNIETA Musika

Zero Sette akordeoi orkestra. **19:30, Zubitxo plaza.**

ANDOAIN Auzo bazkaria

Etxeberrieta auzoan jaiotako en bazkaria. **14:30 Kotoi elkarte. 20 euro.**

IGANDEA 26

URNIETA Mendi irteera

Haurrek in Mulliskora eta Onddira. Zanpatuzen eskutik. Amaieran, hamaiketako. **09:30, Besabi.**



Amama Klaudia jatetxea Zumea plazan.

ANDOAIN Zozketa Andoain Txartelako erabiltzaile direnentzat

Salkin merkatarien elkarteak ekimen batean dago, eta egun hauetarako kanpaina berria sustatzen ari da. Datorren maiatzaren 31 bitarte herrian erosketa eginez gero, Erosleak Amama Klaudian, Aterpen, Danenan, Hirun, Ollokin, Ondarretan, Txalakan edo Txitibarren afaria irabazteko aukera izango du. **Maiatzaren 31 bitarte Salkin elkarte merkataguneetan.**

ASTEARTEA 28

ANDOAIN Solasaldia

Ibarrolaren Pound liburuaz aztergai. **19:00, Basteroko bilera gela.**

OSTEGUNA 30

URNIETA Hitzaldia

Karl Egloff kirolariaren hitzaldia, "Recordman" bezala ezaguna. Sky running kirol jardueran mundu mailako marka ugari jarri ditu. Zanpatuz elkarteak antolatutako hitzaldia. **19:00, Lekaio.**

OSTIRALA 31

URNIETA Gazte Festak

Ametzen tenploa antzerkia, Egapetxou taldea. **Etxeberri plaza, 18:00. Maiatzak 31.**

ANDOAIN Erakusketa

Xarma, Marga Aldabururen eskutik. Ekainaren 14ra bitarte zabalik. **Bastero, 19:00. Irekiera ekitaldia.**

ANDOAIN Dantza

Sareak, Organik dantza taldearen eskutik. **Bastero, 21:30. 10 euro.**

ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO****La pequeña Suiza**

Larunbata, 25:
19:30, 22:00.
Igandea, 26:
19:30.

Astelehena, 27:
19:30; 22:00.

Terra Willy, planeta ezezaguna

Lar, 25: 17:00.
Euskaraz.
Ig, 26: 17:00.



SINOPSISIA

**La pequeña Suiza**

Zuz.: Kepa Sojo. **Herr.:** Espainia (2019). **Generoa:** Komedia. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Jon Plazaola, Ramon Barea, Karra Elejalde, Mikel Losada, Maribel Salas. **Iraupena:** 90 minutu.

Tokikoa eta topikoa, biak batera

Gaztelako herrialde batek gobernuari Euskadiko kide izateko eskaera luzatu dio.

Bitxikeriak tarteko, Suitzarekin bat egiteko eskaera egitera animatuko dira.

**EKAINAK 1****larunbata****Parte-hartzaileak:**

ORBELDI dantza taldea (Usurbil)
TXANBOLIN txistulari banda.
LOURDES IRIONDO musika
eskolako trikitilariak.
EGAPE dantza taldea.

11:00 - Dantzarien topagunea
Egape Ikastola.
11:00 - DANTZARI TXIKIEN EMANALDIA
San Joan Plaza.
11:30 - KALEJIRA DANTZAN
Idiazabal kalea.
12:30 - EMANALDI NAGUSIA.
Plazido Muxika Plaza.
19:00 - PLAZA DANTZAK
Zaldundegiko Plaza.



Urnietako Gazte jaien aurrerapena

Maiatzak 31, ostirala

Iluntzeko 20:30ean jaurtiko da jaien hasierako suziria. Aurretik haur jolasak, kale antzerkia, Bosko anitz txaranga eta herriko buruhandi eta erraldoien kalejira.

Gauean berriz, afari tematikoa, Poxta Zahar elkarteak antolatuta. Afari tematikoa izango da: Hiri tribuak edo tribu urbanoak.

Ekainak 1, larunbata

Urnietako Dantzan, Egape Dantza Taldearen eskutik. 11:00etan hasita, dantza saioak Idiazabal kalean eta beranduago dantzari txikien saioa San Juan plazan. Emanaldi nagusia eguerdiko 12:30ean izango da, Plazido Muxika plazan.

14:30ean bazkaria, 18:00tan elektrotxaranga eta gauean kontzertua.

Ekainak 2, igandea

10:00etan Diana Txanbolin txistulari taldearen eskutik. Goizean zein arratsaldean Egape ikastolen txikienezako joko zein puzgarriak.

12:30ean Txanbolinek kontzertu berezia eskainiko du. Arratsaldean, erraldoi eta buruhandien kalejira.

Aiurri astekariak datorren astean jaien inguruko xehetasunak eskainiko ditu, luze eta zabal.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Haritz Txapartegi Ugartemendia
Maiatzaren 14an jaio zen etxeko pozerako. Zorion aitabxo, amabxo, Arhane eta Uxeri. Aiurriko lankideak.



ANDOAIN
Izaro Irazu Roman
Izarok 12 urte beteko ditu maiatzaren 30ean. Muxu asko etxeko guztien partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

Euritan dantzan, Triana taldearen jaialdian

Euriak ez zuen Trianak antolatu ohi duen Maiatzeko Jaialdia zapuztea lortu, baina zertxobait baldintzatu egin zuen. Gipuzkoa osotik etorritako musika eta dantza taldeen partaidetzarekin egun osoko jaialdia osatu zuten



Errenteriako Concha Rociera taldeak kolorez beteriko jantziak ekarri zituzten Andoaingo ospakizunera. AIURRI

Erredakzioa URNIETA
Festara bertatu zirenek, Andaluziako gastronomia dastatu zuten. Hots, rebujito mantzani-lla, ardo zuria, Camarongo opila, txintxi burrunziak, urdaiz-pikoa, gazta... Eguerdian, Udal ordezkarien eta Triana taldeko kideen urteroko topa egin zuten. Aurtengo taldeen parte hartzea honakoa izan zen: Lasarte-Oria-ko Erketz eta Semblante Andalu- z, Errenteriako Concha Rocie- ra, Arrasateko Alegria de la Sierra de Andalus eta Irungo Albero. Eta, noski, Triana.



Trianako kideen ahaleginari esker aurrera ateratzen da jaialdia urtero. AIURRI



AIURRI

Nahikari, Munduko txapelketara

Ezustekoa Espainiko Selekzioaren deialdian ez sartzea litzateke. Baina albiste ofiziala izan arte, aukera guztiak zabalik daude. Vilda hautatzaileak astelehenean eman zuen deialdiaren berri eta bertan ageri da Nahikari Garcia urnietarra. Albiste bikaina Urnietako jokalariaientzat. Ibilbide oparoa osatzen ari da urnietarra, eta orain munduko onenekin lehiatuko da.



UKE

Denboraldi borobila

Urniet KE taldeko senior mailako neskak denboraldi borobila egiten ari dira. Gorengo mailako igoera fasean igoera ziurtatu dute, ligaska amaitzeko bi jardunaldi falta direnean. Igoeraren txartela Beti Gazteren zelaian lortu zuten, 0-2 irabazi eta gero. Asteburu honetan elkarren aurka arituko dira Intxaurdi eta Urniet. Biek ala biek igoera ziurtatu dute.

Manttaleko borda

Goitik beherako eraberritze lanak egingo dituzte, hurrengo asteetan. Udalak adierazi bezala, "Manttaleko borda eraberritzea 2018ko parte hartze prozesuan herritarrek eskaturiko hobekuntzetako bat zen, eta nahiz eta prozesu hartara bideraturiko diruarekin ez zen gauzatu, aurtengo aurrekontuaren barruan sartu da".



URNIETAKO UDALA

Beloki eta Mujika bertsolari txapelketan

Andoni Mujika urnietarrak eta Ion Beloki andoaindarrak Gipuzkoako bertsolari txapelketarako sailkapen saioan kantatu zuten, joan zen igandean. Errezilen izan zen, eta biek ere lagunen eta gertukoen babesa jaso zuten

Xabier Lasa ANDOAIN

Gipuzkoa Bertsotan izeneko sailkapen faseko saioetako bat izan zen Errezilgoa. Saio txukuna egin zuten biek ere. Bigarren sailkatu zen Mujika urnietarra, eta bostgarren Beloki andoaindarra.

Belokiren jarraitzaile mordoa izan zen Errezilen, Andoainetik joanda. Herriko estatuan bazkaldu zuten denek ere Beloki-ekin batera, eta ondoren saiora joan ziren, bertso saioaz gozatzeko gogoz. Urnietatik ere hainbat lagun joan ziren, Mujika animatzera.

Mujika herriko langilea, Uranga eskultorea

Andoni Mujikak eta Jokin Urangak Errezilgo bertso ariketarik txukunenetakoa osatu zuten elkarrekin, entzuleen barreak eta txaloak eraginez. Iban Narbaiza aurkezleak hona zein gai jarri zien, zortziko txikian hiruna bertso kanta zitzaten: “Zu, Andoni, herri lanetan aritzen zaren langilea zara. Gaur eskultura bat jarri duzu herriko plazan. Lanak bukatu dituzunean, Jokin eskultoreak esan dizu alderantziz jarri duzula”.

Andoni Mujika:

Honek ematen zidan nahiko errespeto. Ustez lan denak nitun hartu nik menpeko. Hau jarri litekela askoz hobeto, erreza ez zegoen tankera hartzeko (bis)

Jokin Uranga:

Ni zure zain nengoen bederatzitatik ta hamabitan zatoz lasai tabernatik. Hau zergatik gertatu zaigun bai, badakit: hurrena jarri zazu gosaldutik aurretik (bis)

Andoni Mujika:

Ez da erreza lana noiz zein jakitea



Ion Beloki andoaindarra eta Andoni Mujika urnietarra Errezilgo bertso saioan. AIURRI

baina ez zazu hartu halako pikea. Alper-alperrik baita ai, Jokin maitea, ura pasata gero presa egitea (bis)

Jokin Uranga:

Nahiz ta nik galdu dudana haseran kontrola fikatzen hasia naiz aldrebes dagola. Etzazula ezer egin ez du ajola, neuri ere gehiago gustatzen zait hola (bis)

Andoni Mujika:

Hasieran bazegon hainbeste problema baina soluzioa nabarmena dena nik aukeratu det ta aukerarik onena: azpian jarriko da neronen izena (bis)

Jokin Uranga:

Zerbait egingo ote deuen bi izen elkartzean firma jarri dezagun aukera hartzean. Nirea aurrean ta zurea atzean. Baina aurrea zein da aldrebes jartzean? (bis)

Beloki, minbizia gaudituta

Gaia jarrita, bi bertso nahi zuten neurri eta doinuak kantatu behar izan zuten sei bertsolariek. Ion Belokik arratsaldeko bertso alerik egokienak burutu zituen orduan. Andoaindarrari honako gaia ipini zioten: “Urteetan minbiziaren aurka borroka egin ondoren, gaur eman dizute alta”.

Ion Beloki:

Minbizi txar bat etorri zen behin nere gorputzan barnera. Hartua nion aspaldidanik nik neuk horretan tankera. Izoraturik iritsi nintzen Onkologiko aldera, baina halare gaurko honetan bizirik atera gera. Gauza bat behintzat ondo ikasi det: egunero egin behar da aurrera.

Azkenetako hura bihurtu zen niretzako kartzela. Baina halare berde kolorez pintatu nahi nuen gela, bizi poz batek lagundu zidan ezin zitekeen bestela, ta horren gaizki egon ondoren nik pentsatu nuen bela: egun bakoitza bizi behar da azkena balitz bezela.

Puntua jarrita, bi bertso

Bi puntu emanda bertsoa osatu beharreko ariketan, gai jartzaileak Mujikari herri kirolen gaia planteatu zion: Herri kirolek berriz hartu dute fama

Andoni Mujika:

eta ibiltzen dira herrietan barna, ni askotan enazu tartean izana. Hortan harrapatzeko izango da lana.

Sasoian ote zaude giza probarako?

Andoni Mujika:

Arpegiz nahiz ta naizen ni nahikoa guapo gorputzean kiloak badauzkat sobrako eta ariketa hoietan nago lekuz kanpo.

Kartzelako gaia, binaka

Kartzelako ariketan bertsolariak bikoteka jarri zituzten, hiruna bertso hamarrekotik txikian kantatzeko. Gaia: “zuen bizitza oso aurrezkiak sartu zenituzten inbertsio fondo batean, eta gaur jakin duzue guztia galdu duzuela”. Hona Uranga eta Belokik osatutako bikoteak egin zuen saioa:

Jokin Uranga:

Garai batean dena koltxoian azpira, guk beste leku baten denak erretira. Hamabi miloi sartu nituen guztira azkenean zer pasa zaigun begira: fondoa ta hondoa gauza bera dira.

Ion Beloki:

Hasieran gu biok ez ginen kezkatu ta horretan zebiltzan ia ia lau katu. Nahiz eta bankeruak guk nahi bai guk akatu ezin degu oraintxe horretan pentsatu. Badakizu, bankuek ezin da fidatu

Jokin Uranga:

Grafikoei begira enintzen aspertzen, orain barruak dauzkat amorruz lehertzen. Zer gertatu ote den ari naiz aztertzen norbaitek hartu ditu edo ez dut ulertzen dirua hola ta hola ez da desagertzen.

Gipuzkoako Txapelketa, irailera begira

Maiatzaren 4an abiatu zen sailkapen fasea, eta 84 bertsolari ari dira parte hartzen. Puntuaketa altuena lortzen duten 34 bertsolariek eskuratuko dute iraillean hasiko den txapelketan aritzeko txartela. Dagoeneko egin dira saioa gehienak; bi besterik ez dira geratzen, Bergarako eta Donostiakoa. Andoni Mujika urnietarrak badauka aukerarik sailkatzeko, baina azken bi saio horietan gertatzen denaren zain dago.

Ion Beloki:

Bankuen kontu hori ez da nobedade eta egoera hau bihurtu da grabe. Baina elkarren ondon gaude gu halare ta arkitzen gera ia ezer gabe. Bankuak ingo al du orain gure alde?

Jokin Uranga:

Txinotara nijoa arren, konprenitu, kaputxa ta pistola nahi ditut aurkitu. Bihar goizean goizik banua abitu, Jokinek hango denak eramango ditu. lapurrei lapurtzea ez baita delitu.

Ion Beloki:

Soluzio bilatzen gaur gau eta egun, eta bankua degu guztian errudun. Ta tratatu gaituzte gixaxoen modun, baina guk euren kontra ezin degu jardun. Gure maitasunean inberti dezagun.

Errezilgo sailkapena:

1. Jokin Uranga 333,5
2. Andoni Mujika 304,5
3. Adur Gorostidi 296,5
4. Imanol Irazustabarrena 293,5
5. Ion Beloki 283,5
6. Gontzal Belategi 262,5